

Alaves ♦ Neguko fitxaketak bata bestearen ondoan aurkezten ari dira arabarrak

Belsue, ekaina arte

Atzera Zaragozara itzultzeko merituak egin nahi ditu lateralak

Xabier Fernandez / Gasteiz

Jokatzeke prest dago Alberto Belsue atzelari aragoiarra. Bi hilabeteko negoziaketak burutu ondoren, ekaina arte sinatu du jokalaria, eta egunkariak 1998 urtea bukatu baino lehen esan zuena bete egin da: Bertiren kontratua lotu ondoren Belsue izango zela Alavesen hurrengo fitxaketa.

Zaragozak aukera izango du ekainean Belsue berreskuratzeko, Alaves taldearekin sinatu aurretik jokalaria kontratua 2001eko ekainaren 30a arte luzatu zuelako. Dena den, Alavesek ez zuen lekualdatze garesti bat sinatu nahi —azken egunotan arrazoi horregatik okertu ziren harremanak— eta, era berean, ezin zuen utzita gehiago jaso, Sivorik, Canabalek eta Gerardek kopurua betetzen dutelako. Litekeena da ekainean berreskuratzea Zaragozak, edo, Alavesek Espainiako Lehen Mailari eusten badio, Alavesek Aragoiko taldearekin berriro negoziatzea.

Atzo goizean pasatu zituen azterketa guztiak, eta bihar jarriko da Jose Manuel Esnal Mane-ren aginduetara, Zaragozan konpontzeke dauden gauza batzuk egiteko gaurko eguna aprobetxatuko duelako.

Alberto Belsuek erronkari eusteko prest dagoela esan zuen kazetarion aurrean: «Erronkak ez dit inolako bel-



JAGOA MANTEROLA

Alberto Belsue, atzoko aurkezpenean.

soslaia

ALBERTO BELSUE • Jokalaria

Klub bakarrekoa

ESKARMENTU handiko eskuin hegala dator Alavesera. Belsuek martxoan betekatu ditu 31 urte, eta otsailean hamargarren urtea Lehen Mailan debutatu zenetik, Sporting-Zaragoza partiduan (1-2). Orain arte 276 partidu daramatza, eta zazpi gol. Iaz bi gol egin zituen Ligan 29 partidu jokatu ondoren. Endesa Andorra taldean jokatu zuen 1986tik 1988ra, eta handik Zaragozara pasatu zen. Espainiako Kopa bat eta Europako Errekopa irabazi ditu han. Espainiarekin internacionala izan da. Rojo Zaragozara heldu denetik ez du aukerarik izan, Rojok Sportingetik fitxatu zuten Pablorigan jarri baitu konfiantza.

Patxi Xabier Fernandez

durrik ematen, eta ilusioz beterik nator Gasteizera». Zaragozan bizi den egoera zaila zela onartu ondoren, futbolari batek egin behar duena jokatzeko dela azpimarratu zuen.

Alavesekin sinatu duen kontratua Zaragozara itzultzeko pausoa izan daitekeela onartu zuen Belsuek: «Bada, kit gauzak ondo eginez gero Zaragozara itzultzeko aukera izango dudala, eta horrek motibazio are handiagoa emango dit». Alavesen eskaintza lehendabizikoa eta serioena izan zela azaldu zuen eskuin lateralak, «Bigarren mailako talde batzuk banituen, edota Oviedorena, baina zurrumurruak ziren askotan», eta Alaves izen ona duen taldeetako bat dela gaineratu zuen.

Beste bi gehiago

Beste bi fitxaketa falta egi dira. Manek goizean esandakoaren arabera, halaxe litzateke, baina arratsaldean aurrelaria soilik aipatu zuen Gonzalo Antonek. Dena den, kazetariak entrenatzaileak goizetik Michelinen esan zuena adierazi zioten Antoni, eta Alaveseko buruak berehala azpimarratu zuen ahal duten guztia egingo dutela taldea indartzeko.

Aurrelari bat falta da, eta atzerritarra izango dela diote Gasteizen. Atzelariari buruz, argentinarra izango dela entzun da.

Mane: «Ilgandean irabaztea da erantzunik hoberena»

Bartzelonako porrota lehenbailehen ahaztu behar dela dio

X. Fernandez / Gasteiz

CAMP NOUKO porrota «lehenbailehen ahaztu» behar dutela esan zuen atzo Jose Manuel Esnal Mane-k. «Futboleko gutxi iraun behar du partidu baten ondorioak, onerako edo txarrerako. Gol zaparrada jaso dugu, bai, baina azken finean hiru puntu baino ez dira galdu. Ilgandean irabaztea litzateke erantzunik hoberena».

Erregeen oparitzat hartu zituen azken bi fitxaketak, eta Alavesen tokia zein den gogora ekarri zuen jarraian: «Denboraldi amaieran beste zortzi edo hamar talderekin egongo gara lehian, guztiak hiruzpalau puntutan murgildurik; horixe da gure Liga eta gure borroka».

Belsueren egoera ez zuen aztertu, baina bai Berti zein Julio Salinasena. Italiarrari buruz, ilgandean egongo ez dela azpimarratu zuen, «sasoian ez dagoelako. Hamar eta hamabot egun bitarteko epea beharko duela esan dit». Italiarraren kokapenaz ere mintzo zen: «Zelai erdian edozein tokitan joka dezake, baita zentral modura ere».

Salinasen inguruan, transferraren zain daudela azaldu zuen Manek, baina behin izanez gero, ez legoke inolako eragozpenik Espanyolen aurka ariatzeko.

hor zain

Angel Maria Villar eta Espainiako selekzioa

Espainiako Futbol Federazioko presidentek, Angel Maria Villar bizkaitarrak, «selekzio autonomikoei» buruzko polemikarekin bukatu nahi izan zuen atzo, «gaur egun naziorteko erakundeek Estatu bakoitzeko selekzio bat onartzen dutelako; gure kasuan Espainiako». Hala ere, onartu zuen Gales, Eskozia eta Irlanda bezalako salbuespenak hor daudela. Bestetik, autonomietako fe-

derazioek «herrialdetik kanpo jokatzen dutenean, Espainiaren ordezkari izaten dira».

Gica Popescu eta Filipescu salgai bederatzi milioi dolarrengatik

Errumaniako bi jokalaririk onenetakoak, Gica Popescu eta Iulian Filipescu defentsak, salgai jarri ditu Galatasarayk bederatzi milioi dolarrengatik (1.300 milioi peze eta 50 bat milioi libera). Galatasarayk berak baztertu

egin du Juventusek Hakan Sukurrengatik egindako 14 milioi dolarreko eskaintza.

Sukerrek 2000ra arte Real Madriden egotea espero du

Azkeneko Mundialeko golegile nagusia, Davor Suker kroaziarra, une txarrak ari da pasatzen Real Madriden, ez baitu askorik jokatzen, eta klub garrantzizko batzuen eskaintzak dituen arren, Real Madridekin 2000ra arte daukan kontratua betetzeko asmoa dauka-

la esan zuen atzo. Bitartean, erregeei gauza bat eskatu die: «Partidu batean neuk hiru gol sartzea, aspalditik nahi baitut hori lortu».

Johansson «haserre» Blaterrekin

Lennart Johansson, UEFAko burua, «haserre» azaldu da Joseph Blatter, FIFAko presidentearekin, Blaterrek, Mundialak bi urtean behin jokatzeke proposamena egin aurretik ez diolako ezer esan. «Onartezina da hori».

Orain proposamenari buruzko eztabaidari «patxadaz» ekin behar dio Johanssonek.

Kanpora bidali dute Nottinghameko entrenatzailea

Nottingham Forest, Inglaterra Lehen Mailako klubak entrenatzaile kargutik kendu du Dave Basset. «Emaiz txarrak» dira horren arrazoi. Nottingham Forest azken tokian dago sailkapenean. Basetek 22 hila bete zeramatzan hango lehen entrenatzaile moduan.